



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

ALDUNDIAK 205 MILIOI EUROKO INBERTSINO PUBLIKOA AURREIKUSI DAU AZPIEGITURETAN 2022AN

- **Azpiegiturak eta Lurralde Garapena, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna, eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala sailetako arduradunek Bizkaiko Batzar Nagusietako Ogasun eta Finantzetako Batzordean azaldu ditue euren sailen aurrekontuak**
- **Pradalesek 240 milioi euroko erabilgarritasuna dauka, eta inbertsino publikoa (205 milioi), bizikletaren aldeko apustua (26,7 milioi), % 40ko hazkundera errepideen barrikuntzan, eta Avanzada estaltzeko eta Lamiakoko Ibai-azpiko errepidea eregiteko proiektu teknikoen amaierara nabarmentzen dira.**
- **Teresa Laespadak zuzentzen dauen sailaren aurrekontua % 10,3 handituko da.**

(Bilbon, 2021eko zementziaren 10ean). Imanol Pradales Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako diputatuak edegi dau gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan 2022ko Aurrekontuen foru arauaren proiektua azaltzeko bigarren jardunaldia. Aldundiak datorren urterako izango dituan 1.459,8 milioi euroetatik 240 milioi Pradalesek zuzentzen dauen departamentuaren beharrak beteteko gordeko dira, hau da, igaz baino % 0,7 gehiago.

Foru diputatuak azaldu dauenez, Aldundiak azpiegituren arloan egingo dauen inbertsino publikoak 205 milioi emongo deusaz Bizkaiko ekonomiari, eta horrek hazkundera bultzatzea eta 1.443 lanposturi eustea ahalbidetuko dau. Bere berbaldian, ganera, bizikletan inbertitzeko ahalegin handia egingo dala (26,7 milioi euro) nabarmendu dau. Arlo horretan, Amorebieta-lurreta arteko bidegorrian, itsasadarreko bulebarrean eta Barakaldo-Erandio zubian egingo dan inbertsino-ahalegin handia azpimarratu dau.

Horrez gain, 2022an “kurutzaldi-abiadura” hartuko da errepideen barrikuntzan, eta elementu “kritiko” bihurtuko da, % 40ko igoereagaz, 2,8 milioira iritsi arte. Kontuan hartu beharreko puntuen artean, datorren urtean zehar, Bizkaiaarentzat “garrantzitsuak” diran azpiegituren proiektu teknikoak amaituko dira, horreen artean, Avanzadaren estaldurea (2,8 milioi) edo Lamiakoko Ibai-azpiko errepidea (3,5 milioi). Proiektu horreek Aldundiaren “inbertsino barri handiak” bilakatuko dira “2023tik aurrera”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Programaz programako aurrekontua xehatuz, Pradalesek datorren urterako beste gastu-partida garrantzitsu batzuk marraztu ditu, horreen artean, bere sailak foru errepideen 1.300 kilometroak mantentzeko eta kontserbetako inbertiduko dituan 56 milioiak, hau da, aurreko ekitaldian baino % 3,5 gehiago.

Aurrekontuaren beste zati handi bat Interbiak soziedadeak eroango dau. 2022. urtea “urte kritikoa” izango da Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarraren bigarren fasearen eraikuntzan aurrera egiteko, 53,2 milioi euroko injekzioa egingo jakolako. Azpiegitura Sailak beste 22,7 milioi euro erreserbauko ditu foru errepideetan merkantzien garraioa erabilteagaitik ordaintzeko sistemea garatzeko. 11,9 milioi Bidesarea Planean sartuko dira eta 8,5 milioi bidesarien bonuan. Erakunde horren hartzekoan partida batzuk konprometiduta dagoz daborduko, Gerediaga-Elorrio ordaintzeko 48 milioiak, besteak beste.

Bere berbaldian, Pradalesek Bizkaiko beste leku batzuk aitatu ditu, datorren urtean zehar egingo diran garrantzi desbardineko obrak apuntatuz. 1,2 milioi euro Artxandako tunelak hobetzeko; 9,6 milioi euro N-240 errepidea eta Atxazpiko zubibidea hobetzeko, eta Kanpazarreko hirugarren erreia eregiteko, besteak beste. Beste esku hartze batzuk Galbarriatun, La Herrera-Malabrigon eta, batez be, Gurutzetako trukagailuan egingo dira. Leku horretan, urte honen bukaeran Kukularrako lanak amaitzen diranean hasiko dira obrak.

Plangintzari jagokonez, 2022an Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Parziala onartuko da (310.000 euro), eta udalek hiri-antolamenduko planak egiteko daukien aurrekontuak % 33ko igoerea izango dau.

TERESA LAESPADAREN AGERRALDIA

Bere aldetik, Enplegu, Gizarte Inklusio eta Berdintasun Sailaren aurrekontua % 10,3 handituko da 2022an, eta 72,3 milioi eurokoa izango da. Teresa Laespadak baieztu dauenez, aurrekontuek 2021ekoek baino 6,8 milioi euro gehiagoko gastua jasoten dabe. Saila zuzentzen dauenetik, aurrekontuak “% 41” egin dau gora.

Foru Aldundiak milioi bat euro gehiago izango ditu indarkeria matxistaren kontra burruketako eta gatx sozial hori jasaten daben emakumeen ezkutua indartzeko, arlo horretako arretea “handitzen” ari dalako. Horretarako, Emakumea eta Familien Esku-hartzea programak 8.716.345 euro jasoko ditu datorren urtean.

Hazten ari dan beste programetako bat gizarte-bazterketa saihestera bideratutakoa da. Gizarte Inklusino programak 1,4 milioi euro gehiago izango ditu (% 6,21), 24,8 milioi



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

eurora iritsi arte. Bi apustu argienak gizarte-bazterketako egoera larria bizi daben personentzako arreta-zerbitzuak hobetzea eta egoera horretan dagozan emakumeentzako eguneko zerbitzu espezifiko bat sortzea, eta gazteen emantzipazio-prozesuetan bazterkeriaren kontrako prebentzio- eta burruka-estrategia indartzea izango dira.

Sailaren lehentasunetako bat enpleo- eta ekintzaitza-programak indartzea izango da, eta horretarako aurrekontua % 7,14 handitu da (1,6 milioi gehiago). Esleitutako 25.129.861 euroakaz, Aldundiak enpleo- eta prestakuntza-programa mistoak gauzatuko ditu, prestakuntza dualaren esperientzia hobetuko dau, enpleoa gizarte inklusiorako elementu moduan berreskuratuko dau, eta lanik ez daukenei eta enpresei profilak bilatzen laguntzeko eredu bat garatuko dau, besteak beste.

Sailean gehien hazten ari dan programa Emakumeen eta Gizonen Bardintasuna da. 600.000 euro gehiago bideratuko dira, % 26ko igoerea, eta aurrekontua 3.797.000 eurokoa izango da. Laespadak desbardintasunaren kontrako burrukea indartu, emakumeak ahaldundu eta genero-arrakalak desagertuarazoteko behar egin gura dau. Aldundi osoan genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna landuko da, eta sentsibilizazio- eta informazio-lanak be egingo dira, beste administrazio batzuekatz batera.

Ildo horretan, Lespadak Genero Eraginaren Aurretiazko azken Ebaluazioaren emaitza aurkeztu deutse Batzar Nagusietako taldeei. 2014an txosten hori “lehenengoz” egin zanetik, “aurrekontu-programa guztiek izan dabe genero-ikuspegiaren ebaluazioa”, esan dau. Datorren urterako, aurrekontuen “604 milioi euro” –% 34– “benetako” genero ikuspegia eukiko dabe. “18,8 milioi euro bideratuko dira bardintasunerako inbertsino espezifikora”, 2015ean bideratu zan kopuruaren “hirukotxa”.

Eta, azkenik, Bizkaiko Aldundia Garapenerako Lankidetzak “gehien indartzen dauen euskal erakundea” izango da. Programa solidario horrek 9.515.624 euro eroango ditu, hau da, % 22,42 haziko da. Laespadaren berbetan, 2016tik % 56 handitu da aurrekontua, “foru aurrekontuaren bikotxa baino gehiago”.

IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA SAILAK 67,3 MILIOI IZANGO DITU

Amaia Antxustegik bere lehenengo aurrekontuak aurkeztu ditu Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala saileko foru diputatu moduan, eta guztira 67.320.000 eurokoak izango dira, beharginen gastuak kenduta, hau da, aurrekoa baino % 7,44 gehiago.

Diputatuak kapituluka, programaka (9) eta azpi-programaka azaldu ditu bere saileko kontuak, eta aurrekontua ia zati bardinetan banatu dau, administrazio-gastu orokorrak kenduta, bi arlo handitan: Ingurumena eta Lehen Sektorea. Bizkaiko lehen



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

sektorearen hobekuntzarako jarduketek eta programek 29.864.409 euro hartuko ditue. Beste 31.659.568 euro ingurumen politikak gauzatzeko erreserbauko dira.

Laguntza programen bidez, lehen sektoreagaz erlazionautako ekonomiak “23 milioi inguru” jasoko ditu “ustiategietan inbertsinoak egiteko, gazteak sektorean sartzeko, ingurumenari eta basogintzari laguntzeko, nekazaritzari eta abeltzaintzari laguntzeko eta ekoizpen ekologikorako”, Antxustegik nabarmendu dauenez.

Ingurumenaren inguruko atalak “barritasun asko” ditu; besteak beste, honeek aitatu ditu diputatuak: klima-aldaketaren kontra burruketako ekimenak, saien eta otsoen kalteengaitiko konpentsazioak –lehen Nekazaritza zuzendaritzaren barruan egozan–, azterlanak egitea eta zarata kontrolatuko ekimenak martxan jartea, ingurumen arloko hezkuntzea (Sare Berdeak eta Berdeago azokea), klima-aldaketaren diagnostikoa egitea edo orain dala gitxi sortutako energia-jasangarritasunaren batzorderako laguntza teknikoa emotea. Horri, hondartzen programarako 6,3 milioi euroko zuzkidurea gehituko jako, eta baita lehenengo hiru bide berdeak egitekoa be. Azken jarduketa horretarako, “437.800 euro” erreserbau dira Lezamako Trenbide Zaharrerako, Arratiako Bidezidorrerako eta Mungia-Plentzia konexinorako.

STREAMING.

https://www.jjggbizkaia.eus/home2/audio_grabaketa/emisiones_directo.asp

Eguena, zemendiak 11

- 09:30ean. Euskara, Kultura eta Kirola
- 12:00etan. Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasuna
- 16:30ean. Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN CONTEMPLA UNA INVERSIÓN PÚBLICA EN INFRAESTRUCTURAS DE 205 MILLONES DE EUROS EN 2022

- Los responsables forales de los departamentos de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Empleo, Inclusión Social e Igualdad, y Sostenibilidad y Medio Natural, desgranán sus presupuestos en la Comisión de Hacienda y Finanzas de las Juntas Generales de Bizkaia.
- Pradales presenta un disponible de 240 millones de euros, en el que destaca la inversión pública (205 millones), la apuesta por la bicicleta (26,7 millones), el incremento del 40% en innovación viaria, y la finalización de los proyectos técnicos para cubrir La Avanzada y construir el Subfluvial de Lamiako.
- El presupuesto del departamento que dirige Teresa Laespada crecerá un 10%.

(Bilbao, a 10 de noviembre de 2021). El diputado foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Imanol Pradales, ha abierto hoy en las Juntas Generales de Bizkaia la segunda jornada de explicación del proyecto de norma foral de los Presupuestos del territorio de 2022. De los 1.459,8 millones de euros que la Diputación dispondrá para el próximo año, 240 millones se destinarán a cubrir las necesidades del departamento que dirige Pradales, lo que supone un incremento del 0,7%.

El diputado foral ha explicado que la inversión pública de la Diputación en materia de infraestructuras supondrá inyectar 205 millones a la economía vizcaína, lo que permitirá impulsar el crecimiento y mantener 1.443 empleos en el territorio. En su intervención ha destacado también el importante esfuerzo inversor en materia de movilidad ciclable (26,7 millones de euros) para trabajar en la bicipista Amorebieta – Iurreta, en el bulevar de la ría y en el puente Barakaldo-Erandio.

Asimismo, en 2022 se cogerá “velocidad de crucero” en materia de innovación viaria, que se convierte en un elemento “crítico”, con un incremento del 40% hasta alcanzar los 2,8 millones. A lo largo del próximo año se finalizarán –ha destacado también Pradales- los proyectos técnicos de infraestructuras “relevantes” para Bizkaia como el cubrimiento de La Avanzada (2,8 millones) o el Subfluvial de Lamiako (3,5 millones),



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

que se convertirán en las “grandes nuevas inversiones” de la Diputación “a partir de 2023”.

Desgranando el presupuesto programa a programa, Pradales ha dibujado otras relevantes partidas de gasto para el próximo año, como los casi 56 millones que su departamento invertirá en el mantenimiento y conservación de los 1.300 kilómetros de carreteras forales, lo que supondrá un 3,5% más.

Otro gran pellizco del presupuesto se lo llevará la sociedad foral Interbiak. 2022 será un año “crítico” para avanzar en la construcción de la segunda fase de la Variante Sur Metropolitana mediante la inyección de 53,2 millones de euros. El departamento de Infraestructuras reservará otros 22,7 millones para desarrollar el sistema que permita el pago por uso del transporte de mercancías en distintas carreteras forales. 11,9 millones serán para el Plan Bidesarea y otros 8,5 millones para el bono peaje. En el haber de esa entidad figuran partidas ya comprometidas como los 48 millones para pagar la Gerediaga-Elorrio.

A lo largo de su intervención, Pradales ha ido recorriendo otros puntos de Bizkaia apuntando obras de distinto calado que se irán ejecutando a lo largo del próximo año. 1,2 millones de euros para mejorar los Túneles de Artxanda; 9,6 millones de euros para mejorar la N-240 y el viaducto de Atxazpi, y construir el tercer carril de Kanpatzar, entre otros tajos. Habrá otras actuaciones en Galbarriatu, La Herrera-Malabrigo y, sobretodo, en el Intercambiador de Cruces, aquí en cuanto terminen a finales de este año las obras de Kukularra.

En materia de planificación, en 2022 se aprobará el Plan Territorial Parcial del Bilbao Metropolitano (310.000 euros) y habrá un aumento presupuestario del 33% a los ayuntamientos para elaborar planes de ordenación urbana.

COMPARECENCIA DE TERESA LAESPADA

Por su parte, el presupuesto del departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad crecerá en 2022, un 10,3% más, hasta situarse en los 72,3 millones de euros. Teresa Laespada ha confirmado que estas cuentas incluyen un incremento del gasto de 6,8 millones respecto a lo presupuestado en 2021. Desde que lidera este departamento, el presupuesto ha crecido un “41%”, ha precisado.

La Diputación contará con un millón de euros más para luchar contra la violencia machista y reforzar el escudo para las mujeres que sufren esta lacra social, ya que la atención en este ámbito “está creciendo”. Para ello, el programa Mujer e Intervención Familiar alcanzará el año próximo los 8.716.345 euros.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Otro de los programas que crece es el destinado a evitar la exclusión social. Su programa de Inclusión Social tendrá un extra de 1,4 millones (6,21%) hasta elevarse a los 24,8 millones de euros. Las dos apuestas más claras serán mejorar los servicios de atención en personas con grave situación de exclusión social y crear un servicio de día específico para mujeres en esta situación, y fortalecer la estrategia de prevención y lucha contra la exclusión en procesos de emancipación de jóvenes.

Una de las prioridades del departamento será reforzar los programas de empleo y emprendimiento que experimentan un aumento presupuestario del 7,14% (1,6 millones más). Con los 25.129.861 euros consignados, la Diputación desarrollará programas mixtos de empleo y formación, mejorará la experiencia de la formación dual, recuperará el empleo como elemento de inclusión social y desarrollará un modelo de acompañamiento a personas desempleadas y a las empresas en la búsqueda de perfiles, entre otras cosas.

El programa que más crece porcentualmente en el departamento es el de Igualdad de Mujeres y Hombres. Se inyectan 600.000 euros más, un aumento del 26%, hasta situar el presupuesto en 3.797.000 euros. Laespada busca con este programa reforzar la lucha contra la desigualdad, empoderar a las mujeres y trabajar para eliminar brechas de género. Se trabajará en la transversalidad de la perspectiva de género en toda la Diputación y en labores de sensibilización e información junto con otras Administraciones.

En este sentido, Laespada ha presentado a los grupos junteros el resultado de la última Evaluación Previa de Impacto de Género. “Por primera vez”, desde que se hace este informe en 2014, “todos los programas presupuestarios han contado con una evaluación de perspectiva de género”, se ha congratulado. Para el año próximo, “604 millones de euros” del presupuesto -el 34%- cuentan con mirada de género “real”. Se destinarán “18,8 millones a inversión específica en igualdad”, el “triple” que en 2015.

Y, por último, la Diputación vizcaína será “la institución vasca que más refuerza” la Cooperación al Desarrollo. Este programa solidario se llevará 9.515.624 euros lo que significa que crecerá un 22,42%. Laespada ha asegurado que el presupuesto en este terreno ha crecido un “56%” desde el año 2016, “más del doble del presupuesto foral”.

SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL DISPONDRÁ DE 67,3 MILLONES

Amaia Antxustegi ha presentado sus primeros presupuestos como diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural que incluyen un montante total de 67.320.000 euros,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

excluido los gastos de personal, lo que representa un incremento del 7,44% respecto al anterior.

La diputada foral ha desgranado las cuentas de su departamento por capítulos, programas (9) y subprogramas, y ha repartido casi a partes iguales su presupuesto, excluido los gastos generales de administración, en dos grandes áreas: Medio Ambiente y Primer Sector. Las actuaciones y programas para cubrir la mejora del sector primario de Bizkaia acumularán 29.864.409 euros. Otros 31.659.568 euros se reservarán para desarrollar las políticas medioambientales.

Mediante programas de ayudas, la economía relacionada con el primer sector recibirá “cerca de 23 millones” para “inversiones en las explotaciones, sumar jóvenes al sector, ayudas ambientales y forestales, ayudas agropecuarias y producción ecológica”, ha destacado Antxustegi.

El apartado de medio ambiente presenta “muchas novedades”, entre ellas, la diputada ha citado las iniciativas para luchar contra el cambio climático, las compensaciones por daños de buitres y lobos –antes en la dirección de Agricultura- la elaboración de estudios y la puesta en marcha de iniciativas de control del ruido, así como la educación ambiental (Sare Berdeak y feria Berdeago), la elaboración de un diagnóstico de cambio climático o la asistencia técnica para la comisión de sostenibilidad energética recientemente creada. A esto se sumará la dotación para el programa de playas con 6,3 millones y para ejecutar las tres primeras vías verdes. A este fin se reservan “437.800 euros” para la Vía Vieja de Lezama, la Vía sendero de Arratia y la conexión Mungia-Plentzia.

STREAMING: PRÓXIMAS SESIONES

https://www.jjggbizkaia.eus/home2/audio_grabaketa/emisiones_directo.asp

Jueves, 11 de noviembre

- 09:30 horas. Euskera, Cultura y Deporte
- 12.00 horas. Institucional, Buen Gobierno y Transparencia
- 16:30 horas. Transportes y Movilidad Sostenible